



EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 14koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2021-2022 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programako lehenengo eta bigarren berriztapenak emateko 2021eko abenduaren 14 ebazpena aldatzen duena.

Hezkuntza sailburuaren 2021eko uztailaren 6ko Aginduaren bidez, 2021-2022 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitu zen.

2021eko abenduaren 14ko ebazpenaren bidez, aipatu laguntza horien lehenengo eta bigarren berriztapenak ebatzi zituen.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 2017/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Ebazpeneko eranskinetan aurkitutako akatsak direla eta:

EBATZI DUT:

Lehena.- II. Eranskina aldatzea.

Bigarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 14an.

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea,
Adolfo Morais Ezquerro



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN